

## **GAIA: IGEentzako 2010/2011 IKASTURTERAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKARIAK**

IGEek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari urtero eskatu ohi dizkieten diru-laguntzen izapideak maiatzean eta ekainean egin behar izaten dira, oro har. Aurten, ordea, 2010-2011 ikasturterako diru-laguntzen eskariak egiteko epea atzeratu egingo da; aurreikuspenen arabera, irailean egingo dira aurten. Atzerapenaren arrazoia hauxe da: Hezkuntza Saila diru-laguntzen eskariak egiteko prozesuan aldaketa batzuk egiteko aukera aztertzen ari da.

**BERAZ, IGE GUZTIEI JAKINARAZI NAHI DIEGU DIRU-LAGUNTZEN ESKARIAK IRAILEAN EGINGO DIRELA.** Horri buruzko informazioa jaso bezain laster (Buletin Ofizialean deialdia noiz argitaratuko den, epeak, zer dokumentazio behar den...), BAIKARAK IGE guztiei bidaliko die.

**GARRANTZI HANDIKO OHARRA:** Gogoan izan 2010-2011 ikasturterako laguntzen eskaria irailean egingo den arren, ezinbesteko betebeharra izango dela 2009-2010 ikasturterako onartutako diru-laguntza jasotzeko gastuak justifikatzea, eta **2010eko EKAINAREN 30ean AMAITUKO DELA HORRETARAKO EPEA.**

**Justifikazio hori aurkezteko, V. ERANSKINA bete beharra dago (2009/2010 ikasturteko gastuen justifikazioa), eta IGEaren izenean egindako ordainagiriak eta fakturak aurkeztu behar dira. Gogoan izan jasotako diru-laguntzaren kopurua adinakoa edo hortik gorakoa izan behar duela justifikatutako zenbatekoak.**

Jakinarazpen honekin batera bidaltzen dizuegu V. ERANSKINA. Dokumentazio hori guztia (eranskina, behar bezala beteta + jatorrizko ordainagiriak) ekainaren 23a baino lehen jaso behar dugu BAIKARAN, aztertu eta Hezkuntza Ordezkaritzan garaiz aurkeztu ahal izateko.